| | |
|---|---|
| **ADIERAZLEA:** | **INDUSTRI SEKTOREKO ENPLEGU KOPURUA** |
| **FITXA METODOLOGIKOA** | |
| **ARDATZA:** | **EKONOMIA** |
| **ALORRA:** | **INDUSTRIA** |

**DEFINIZIOA:**

Udalerrian dauden industri sektoreko enplegu kopurua.

**NEURRI UNITATEA:**

Enplegua

**KALKULU METODOLOGIA:**

Industri sektoreko enplegu kopurua.

**KALKULU MAIZTASUNA:**

Urtero

**INFORMAZIO ITURRIAK:**

Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID), Eustat.

**OHARRAK:**

Erreferentziako urtearen aurreko urtean jardueretan modu aktiboan parte hartu duten pertsonen batez bestekoa, eskudirutako edo espezietako ordainsari baten truke edo enpresa-mozkinen parte baten truke, izango da establezimenduek sortutako “**enplegua”**.

Kontzeptu horretan mota guztietako laneskua sartzen da: jabeak, autonomoak eta bazkide aktiboak, famili laguntzak (partaidetza iraunkorra izan edo ez izan), soldatapeko langile finkoak (etengabeak edo etendunak), eta soldatapeko aldi baterako langileak, nahiz etaaldi batez lanean egon ez, edozein arrazoi dela medio, baina lan harremanak irauten badu (gaixotasuna, amatasun baimena, oporrak, greba, lansaioaren erregulazioa, etab).

Lanaldi partzialean egiten diren jardueretan, denboraldikoetan, urtebete baino denbora laburragoan egiten direnetan (urte horretan irekitzeagatik edo ixteagatik), soldatapeko aldi baterako langileek egindakoetan edo langile finko etendunek egindakoetan, lanaldi osoan urteko batez besteko baliokidea zenbatuko da okupatutako langile gisa.

Industri sektoreko establezimendu-kopurua zehazteko orduan, ondoko hauek izango dira kontuan: CNAE-2009ko C eta J hizkietan dauden establezimenduak, eta energia-sektorean daudenak, Jardueren Sailkapen Nazionaleko (CNAE-2009) D eta E ko zati bat hizkietan sartuak (energia elektrikoaren, gasaren eta uraren produkzioa eta banaketa).